



Eguesibarko Udalak, Kulturako eta Festetako Ordezkaritzaren bitartez, Sarrigurengo 2024ko Festak iragarriko dituen kartelaren lehiaketarako deia egiten die Sarrigurengo haur guztiei. Hauek dira lehiaketaren oinarriak:

## OINARRIAK

1. Sarrigurengo 2024ko Festak iragartzeko kartela hautatzea da lehiaketaren helburua.
2. Lehen Hezkuntzako 5. edo 6. maila ikasten ari diren Sarrigurengo haur guztiak aurkezten ahalko dira. Haur bakoitzak obra bakarra aurkezten ahalko du, jatorrizkoa eta inoiz argitaratu gabea betiere. Beraz, beste lehiaketa batzuetara aurkeztutako kartelak baztertuko dira, baita, osorik edo partez, beste nonbait argitara emandakoak ere.
3. Kartelaren gaia librea izanen da, baita estiloa eta teknika ere, baina emaitzak egokia izan beharko du deialdiaren helbururako, hau da, festak iragartzeko.
4. Obrek ezin izanen dute inolako testurik izan, errotulagailuz edo kolore biziko beste elementu baten bidez eginiko marrazkia baizik ez da aurkeztuko.
5. Obra egiteko, xede horretarako emanen den txantiloia erabili beharko da.
6. Lanak ezinen dira sinatuta aurkeztu. Atzealdean erantsitako dokumentu batean (gutun-azal itxi batean) datu hauek jarriko dira: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa.
7. Lehiakide bakoitzaren ardura izanen da kartela bidaltzea eta hartzea. Egileak ez du erreklamatzeko eskubiderik izanen, baldin eta garraioan edo erakusketan lana galtzen bada edo kalterik jasaten badu.
8. Obrak Eguesibarreko Udalaren jabetzakoak izango dira, eta Udalak obrak erabiltzeko, erreproduzitzeko eta zabaltzeko eskubide osoa izango du, denbora-mugarik gabe.
9. Kartelak aurkezteko epea **APIRILAREN 19an** bukatuko da.
10. Obrak nola aurkeztu:
  - Ibarreko ikastetxeetako ikasleak ez diren adingabeak: Eguesibarko Udaleko Herritarrendako Arreta Bulegoan, asteleheneetik ostiralean, 08:30etik eta 14:30era. Udaletxean dago bulegoa.
  - Ibarreko ikastetxeetako ikasleak: ikastaldearen tutoreari eman, eta horrek Udaletxean aurkeztuko ditu.
11. Saria 100 €-ko txartel bat izanen da, Udalak zehazten dituen saltokietan kontsumitzeko.
12. Honako hauek osatuko dute epaimahaia: Eguesibarko Udaleko Kultur zinegotziak, edo hark izendatzen duen ordezkariak; Udaleko Kultur teknikariak; festa egitarauaren diseinuaz arduratzen den pertsonak; eta Ibarreko ikastetxe bakoitzeko Zuzendaritza Taldeko ordezkari batek (Hnas. Uriz Pi IP, Joakin Lizarraga IP, Maristas ikastetxea eta British School).



- 13.** Epaimahaiak inor ez saritzea erabakitzen ahalko du, baldin eta uste badu lan bakar batek ere ez duela behar adinako kalitatea, eta aurkeztutako lanak bazter ditzake eskatutako betebeharrak bete ezean.
- 14.** Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da.
- 15.** Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar berekin.
- 16.** Ahalmena ematen zaio lehiaketaren epaimahaiari oinarriak interpretatzerakoan sor litezkeen zalantzak-eta erabakitzeko. Epaimahaiak, bestetik, lehiaketak egoki funtzionatzeko behar diren ebazpen edo erabakiak hartzen ahalko ditu.

Sarrigurenen, 2024ko otsailan